

Era: Exonimo jaso gabe bat

Jacinto Iturbe

Mendebalde Kultura Alkartea
jacinto.iturbe@gmail.com

Abstract

In this short communication, we give notice of Era, an exonym not listed in the Basque Academy's list of exonyms.

Laburpena

Komunikazio labur honetan Era exonimoaren berri ematen da, Euskaltzaindiaren exonimoen zerrendan agertzen ez dena.

Keywords: Era, exonym, Aire, Aire-sur-l'Adour

Gako hitzak: Era, exonimo, Aire, Aire-sur-l'Adour

1. Era hiriaren aipamena

“Eucologia-ttipia” liburua 1831.ean Baionan argitaratu zen, zeinaren lehen orrian zera irakur baitaiteke:

EUCOLOGIA-TTIPIA

edo

ELIÇACO LIBURUA

BAYONACO

DIOCESACOTZ,

ceinetan aurkhitzen baitira urthe gucian eliçan cantatcen direnac, missel eta brebiario berrien arabera ;

imprimatua gure jaun aphezpicuaren permissionearekin.

EDICIONE BERRIA.

BAYONAN,

CLUZEAU LIBURU SALTÇAILEA BAITHAN,

Catedraleco plaçan, 13en lumeroan.

1831.

Liburua ez da ezezaguna. Julien Vinsonek[1] 88e zenbakiarekin aipatzen du, eta Jon Bilbaok[2] ere badakar.

Eta liburuaren hasieran, ohikoa edo derrigorrezkoa zen moduan, Apezpikuaren aprobazioa dator:

PERMISSIONEA.

DOMINICA-MARIA SAVY,

Jaincoaren Misericordiaz eta alkhi

Apostolico Sainduaren Autoritatez,

Eraco Aphezpicu garenac,

Permetitu dugu eta permetitcen, presenteco letra hautaz, Jaun Cluzeau, Santespietaco Imprimatçaileri, imprima detçan bi obra seguidacoac:

Lehena, *Le Petit Eucologe ou Livre d'Englise*, etc.

Bigarrena, Eucologia-Ttipia edo Eliçaco Liburua, Bayonaco Diocesacotz, ceinetan aurkhitzen baitira urthe guzian Eliçan cantatcen direnac, Missel eta Brebiario berrien arabera; imprimatua gure Jaun Aphezpicuaren permissionearekin.

Eran emana, Urriaren 31an, 1829.

D. Maria, Eraco Aphezpicua.

Consentitcen dut Jaun Cluzeau cerbitça dadien goragoco permissioneaz, ene Diocesacotz.

P. T. D., Bayonaco Aphezpicua.

Permissione horretan aipatzen den Santespiet[aco] hori, Espiritu Saindua da, (frantsesez Saint-Esprit), eta

gaur egun Baionan badago ere, 1792 eta 1857 artean Landetako Departamentuko commune bat izan zen[3].

Baina ene irudiko interesgarriagoa da Permissionean bertan hiru aldiz aipatzen den Era: *Eraco Apehzipicu* (bi aldiz) eta *Eran emana*. Eta galdera dator: Non dago Era, apezpikuaren sedita den hiri edo toki hori? Galdera horren erantzunaren bila, Euskaltzaindiak argitaratu duen exonimoen zerrendara[4] joz, ikusiko da bertan ez dela agertzen.

Dena dela, galdera horren erantzunaren bilaketa bizkorra da, Internet baliatuz. Horrela, apezpikuaren izenarekin zera aurkitzen dugu[5], beste gauza batzuren artean:

Savy, Dominique-Marie (1771-1842)

Aire (Mgr l'évêque d')

Né à Toulouse, il fut sacré évêque d'Aire en 1827.

Date de naissance : 08 05 1771

Date de mort : 14 12 1842

Beraz, Aire izeneko toki bateko apezpikua izan zen. Bilaketa Aireko diozesian jarraituz, zera ikusiko dugu: gaur *diocèse d'Aire-et-Dax* dela, hots, Era eta Akize diozesia. Diozesi horren historian[6] ikusten da Era (hots, Aire) apezpiku-hiria VI. mendetik dela ezaguna, baina 1801ean, eta Akizekoarekin batera, Baionakoan integratua izan zela; gero, 1817an berrezarria izan zela Landak izanik haren barrutia. 1857an, Erako diozesiaren izenari (hots, Aire-ri) Akizeko (hots, Dax-eko) diozesi desagertuaren izena gehitzen zaio, eta 1933an diozesiaren sedita Akizera eramaten da. Dena dela, Erako gaur eguneko izen ofiziala luzeagoa da: Aire-sur-l'Adour.

Gero, Era eta Aire toki berberaren euskal eta frantses izenak direla konfirmatzeko, Erako apezpikuen izenen zerrendan[7] agertzen zaigu permissionea eman zuen apezpikuaren izena, eta horrela jakingo dugu Savy apezpikua dimititu egin zuela 1839an.

Datu hauek justifikatzen dute zergatik Erako apezpikuak eman behar zuen bere Permissionea Jaun Cluzeauri bere liburua inprimatzeko: 1831an inprimategia Espiritu Sainduan zegoen, orduan Landetako Departamentuan, eta Erako diozesiaren barrutian. Gero, Baionako apezpikuak Jaun Cluzeauri kontsentitzen dio permissione horretaz zerbitzatzea haren diozesian.

Azken puntu bat. Permissionean agertzen den P. T. D. Baionako apezpikua Paul-Thérèse-David d'Astros da[8], 1820-1830 tartean aritu zena.

2. Konklusioa

Argi ikusten da euskal testuan Era usatzen dela Aire hiria izendatzeko, hots, Aire-sur-l'Adour hiria izendatzeko. Garai batean euskaldunek Era erabili eta

idatzi zuten hiri hori izendatzeko, eta horregatik uste dugu interesgarria dela erabilera hori erreskatatzea eta jakinaraztea.

3. Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiet Kepa Altonaga eta Alfontso Mujika adiskideei lan honetarako eman dizkidaten iradokizunengatik.

4. Bibliografia

- [1] Vinson, Julien: Essai d'une bibliographie de la langue Basque, 204. or. Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia (1984).
- [2] Bilbao, Jon: Eusko Bibliographia, vol. III. 278. or. Auñamendi, Donostia (1973).
- [3] Frantzesko Wikipedia:
[https://fr.wikipedia.org/wiki/Saint-Esprit_\(Pyr%C3%A9n%C3%A9es-Atlantiques\)](https://fr.wikipedia.org/wiki/Saint-Esprit_(Pyr%C3%A9n%C3%A9es-Atlantiques)).
- [4] Euskaltzaindia: Munduko leku-izen nagusiak euskaraz eta Euskal Herriaren inguruko exonimia (2016-06-30 eguneratua).
http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/eoda/exonim_oak.pdf
- [5] Identifiants et Référentiels web orria:
<http://www.idref.fr/156600897>
- [6] Frantsesezko Wikipedia:
https://fr.wikipedia.org/wiki/Dioc%C3%A8se_d'Aire_et_Dax
- [7] Frantsesezko Wikipedia:
https://fr.wikipedia.org/wiki/Liste_des_%C3%A9v%C3%AAsques_d%27Aire
- [8] Frantsesezko Wikipedia:
https://fr.wikipedia.org/wiki/Liste_des_%C3%A9v%C3%AAsques_de_Bayonne